

Idazle erresha eta atsegiña da: gure erriko kantak eta ipuyak dakiena eta euskera erritarrara erabietzen duana: Pranziskotar gaztea eta Zarauz'ko semea da.

LIRIKOAK

Lore ta izar (Ama zanari)

Lurrean lore ziñan, lore garbi-lirain;
Zeruan izar zera, izar argi orain.

Eguzkiak maitea, eder beziñ garbi,
basoa beste ezagun gabe ziñan azi.

Atzapar lizunkoyak loitu ez zintzaten,
aitak bein baserrira aldatu zinduen.

Ta andik eguzkiari, eder bezin garbi,
lore berri ugari zenion eskeñi.

Bizitzan zeriozun usaya oraindik
geure-geurekin degu il zintzaigunetik.

Zu iltzean baserriak lore bat galdu zun;
ta izar eder bat piztu zeruan zitzaigun.

Pozgarri auxe degu alare munduan:
gure oroitx izar bat dagola zeruan.

Ama! ni ere lore nadilla gaur emen,
eta zeruan izar eriotz-ondoren.

Ama! guziok lore gadilla lurrean
eta zeruan izar zurekin batean.

Zein ederra dan!

Zein ederra dan
olerkaritza
biotzak min duanean!
Zein ederra dan
somatu nuen,
ama, zu il ziñanean!

Zerurañoxe
kanta jaso nai
nizuke, otoitz-antzean;
berez ezinda,
bidaltzen dizut
otoitzarekin batean.

Zein ederra dan
olerkaritza
otoi biurtzen danean!

Ama alarguna'k

Oraindañoko inularretan
maite nuen itxasoa,
arraiz beteta azaldutzean
txalupak mugan lepoa.
Arrantzalea nuen senarra,
—arrantzalea gajoa!—
itxas gaizto orrek atzo irentsi...
Gaur diodan gorrotoa!

Alabatxoa mendi-gañetik,
aitatxo noiz etorriko,
itxasoari begira dago
eguna argitu duneko.
Nik nolaz esan itoa dala,
galdu degula betiko?
Ta alabatxoa zai ta zai dago
aitatxo noiz ikusiko...

Bedeinkatzen det, Jaungoiko ona,
bedeinkatzen zure eskua.
Bakar-bakarrik eskatzen dizut
senarrarekin zerua,
egunen batez bildu gaitzen
beko famili osoa.
Ongi zaude, bai, noiz ikusiko
aita-zai, alabatxo!

Eztai-kanta (Bukolika)

«Bego goldea egonean
kate ta uztarri-zayean...
Soroan baño girogo dizu
itzai gazteak mayean».

«Erretenean barrena
zijoak ura ariñena...
Ur onez, pozez bete dezagun
bizitzaren erretena».

«Gaur arteko neke-lanak
ta etorriko diranak
uxa ditzala ezkonberrien
eztaitako jan-edanak».

«Bijoa leyoz landara
kantarien deydara:
Bizi artean luza dedilla
gaurko zorion-algara!».

«Gaur beintzat poztu gaitzen,
artu dezagun atsedena!...
Errekak ez dik gezaldu bear
itxasoratu baño len».

«Zorionaren deyera
jo zagun ibayan-bera,
atseginaren txalupa argian,
eldu-arte itxas-ertzera».

Esaten zegok artean
goldea, uztarri-zayean:
—«Bearko nauk bai, bearko nauk bai,
itzai, egunen batean!».

“ARANTZAZU” - POEMATIK

Mariñel-erria

«Boga, mariñela,
boga urrutira...
Bai Indietara,
bai Indietara».
Eskuetan arpoya
ta, soñean zira,
itxasoz jo dezagun
jo Ames-errira,
lur berririk agiri
ote-dan begira...

Ai urruti-miña!
gaitz senda-eziña;
bañan ala ere
ondo atsegiña!
Min izkutu orretzek
beti eragiña,
euskal-Kondaira dea
itxasoz aitzina.
Egonak pozik ez du.
Boga alegiña!

Mariñel-erria
da Euskalerrria;
ta itxasoa, euskal-
miñen ataria...
Legazpi ta Urdanetak
beren Goyerria;
Okendo ta Elkanok,
aldiz, Beterria;
itxasoz daramate
euskal-Edestia...

Entzun, mariñela,
entzun itxasotik
datorkizun deya,
lilluraz beterik:
—«Atozkit... Zure leyak
ez dute naikorik
nere ur zabaletan
bogatzean baizik.
Euskal urruti-miñak
aseko ditut nik!».

Zori obearen
atzetikan guazen,
biotzak nun dezan,
nun dezan atsedan...
Lur ezaguna atzean
utzi ezkutatzen;
ugarte berriren bat
nunbait agerturen...
«Lurra! Lurra!» azaltzean
zer dan poz jakiñen.

«Zorion! Zorion!»
nai ba'dezu topo,
abia itxasora;
ibillian dago.
«Lurra! Lurra!» azaltzean
ez da an gelditzeko;
bat ezagun orduko
bestera abitzeko.

Lur guziak baño re
gaitz senda-eziña;
bañan alaere
ondo atsegiña!...
Min izkutu orretzek
betj eragiña,
euskal-Kondaira doa
aitziña ta aitzina.
Egonak pozik ez du.
Boga alegiña!

Zaldibar'ko miraria

Bizkayan dezu Zaldibar,
Zaldibar,
beti negar goiz ta inular!

Zaldibarren neskatoa,
gajoa,
zazpi urtez gaitzak joa;

gaxoa,
deabruak eraso.

Birau ta lerdea aboan,
amorrusua kolkoan;
beti deabruen mende...

Ta alaxe
zazpi urte luze-luze...

Ta, ai ene!
sendatzerikan ez uste...

Arantzazuko mendira
begira,
itxaropenak dizdira...

—«Andra-Marik sendaturen!».

Ta ain zuzen,
aita-amak agindu zuten:

bi meza
ta Arantzazura promesa.

—«Ez geranak geralako,
»Zu zerana zeralako,

»ANDRA-MARI! senda zazu;
»ta, prestu,
»irurok jungo gaituzu

»erromes
»Arantzazurako bidez».

* * *

ANDRA-MARI'ren izena
ai ena!
deabruentzat txarrena,
Entzun duten ordukoxe
ai ene!
motrolloan danak aide...

Ta bertan
neskatoa sendatu zan
ta iritxi zun poz betea:
osasuna ta pakea.

...Zaldibar,
beti parrez goiz ta iñular!

Uxo: naramazu...

(Arantzazura zetoarren erromesen bat bidean galtzen ba'zan, uxo bat agertzen omen-zitzayon bidea erakustera.

Onako alkarrizketa ontan uxo orrek beste gidari bat izendatzen dio Erdi-Aro'ko Euskal-erri bidaztiari: Ama-Birjiña agertu zitzayon Errodrigo Baltzategi.

—Uxo mandataria:
nondik zatoz, nondik?
—Nondikan natorkizun?
Zeru-goi bertatik,
zuri estura ortan
laguntzeagatik
ta eraman zaitzadan
Zerura zuzenik.

—Uxo mandataria:
ez det nai besterik:
atera nazazula
estura ontatik.
O bai, arren! egizu
ainbeste nigatik:
eraman nazazula
Zerura zuzenik.

—Ni aurretik naizela
atozkit atzetik.
Zerurako bidexka
ondotxo dakit nik.
Mendi santu batera,
joko degu lenik,
andik egatutzeko
Zerura zuzenik.

—Ai uxo gidaria:
alperrik, alperrik.
Zu egan zoazela,
ezin jarraitu nik.
Ez didazu emango
beste gidaririk
Mendi santu ortara
naramakeanik
anditxek igotzeko
Zerura zuzenik?

—Nun dagon Mendi ori
bada dakianik.
Ara Errodrigotxo
gainbera Aloñatik.
Arek erakutsiko
neronen partetik
nondik igo zindezken
Zerura zuzenik.

